



“LUBERRI Oiartzungo Ikasgune Geologikoa FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.- Izena.

1.- “Luberri Oartzungo Ikasgune Geologikoa” izeneko Fundazioa, bere ondarea interes orokorreko helburuetara lotuta modu iraunkorrean duen irabazi-asmorik gabeko erakundea da.

2.- Fundazioa bere sortzaileen borondatearen eta estatutu hauen arabera arautzen da eta, betiere, ekainaren 2ko 9/2016 Legearen eta hura garatzen duten erregelamendu bidezko xedapenen eta indarrean dauden gainerako arauen arabera.

3.- Fundazioaren iraupena mugagabea da.

2. artikulua.- Araubidea, gaitasuna eta nortasun juridikoa.

1.- Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea du, eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera. Halaber, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun erabatekoa izango du, muga hauekin soilik: sortzaileek beren borondatez fundazioa osatzen duten ekitaldian adierazitakoak, estatutu hauetan ezarritakoak, eta, betiere, aplikatzekoak diren lege xedapenetan eta bereziki ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoan, jasotakoak.

2.- Horrenbestez, eta Babesletzari egin beharreko komunikazioei kalterik egin gabe, Fundazioak erabateko jardute-gaitasuna izango du bere helburuak betetzeko, Kode Zibilaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera. Fundazioak ondoren azaltzen den guztia egin ahalko du:

a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak garatu, elkartearen helburuak lortze aldera edo helburuok lortzeko baliabideak batze aldera.

b) Mota guztietako ondasunak eta eskubideak bereganatu eta besterendu, edozein tituluren bidez, eta mota guztietako egintzak, negozioak eta kontratuak egin.

Luberri Fundazioa • Fundación Luberri • Fondation Luberri

Pagoaldea, 41-42 | 20180 Oiartzun – Gipuzkoa • tel. 943 26 05 93 / 94 | luberrifundazioa@gmail.com



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855010



c) Edozein motatako egintzak gauzatu, bere estatutuen eta legeen arabera.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

1- Hauek dira fundazioak lortu nahi dituen interes orokorreko helburuak:

1) Fundazioaren helburua da Oartzungo, Oarsoaldeko eta, oro har, Euskal Herriko geologia, mineralogia, paleontologia eta natur zientziak ikertzea, zaintzea eta zabaltzea, eta aldi berean, LUBERRI OIARTZUNGO IKASGUNE GEOLOGIKOAN dauden harrien, mineralen eta fosilen bildumak, eta halaber, argitalpenak, agiriak, kartografia, argazkigintzako materialak eta ikus-entzunezkoak kudeatzea.

2) Helburu zabal horren barruan, jarduera jakin garrantzitsuenak eta lehenak ondokoak izango dira:

-Oartzungo harana, Oarsoaldeko bailaran eta oro har, Euskal Herrian eta lur-eremu geografiko horretatik kanpo dagoen ondare geologikoarekin zerikusia duten ikerlanak eta ikerketa-proiektuak gauzatzea, sustatzea edo babestea.

-Aipaturiko azterlan eta ikerlan horien zabaltze-programen garapena, eta era berean, JOSE ANGEL TORRES SAENZ jaunak sorturiko bildumarena.

-Oartzunen, Interpretazio Geologikoaren ikasgunea-museoa abian jartzea eta hura zabaltzea, aipaturiko gai horren inguruan topaleku izan dadin eta helburutzat fundazioaren xedeak lortzea izango duena.

-Jardunaldiak, hitzaldiak, mintegiak, biltzarrak, ikastaro espezializatuak eta antzeko jarduerak antolatzea.

-Oartzungo haraneko, Oarsoaldeko bailarako eta, oro har, Euskal Herriko eta lurralde-eremu horretatik kanpoko ondare geologikoarekin eta paleontologikoarekin zerikusia duten tailerrak, laborategiak, garbiketa-lanak eta konponketa-lanak antolatzea.

-Bisita gidatuak, hitzaldiak eta gainerako jarduera antolatzea.

-Argitalpenak, liburuak, aldizkaria, fitxa didaktikoak, inbentarioak, ikus-entzunezkoak, informazio-panelak eta gainerako euskarriak editatzea aipaturiko ondare geologikoa eta paleontologikoa zabaltzearen.

-Ondare geologikoaren eta paleontologikoaren eta biodibertsitatearen ikerketa edo ezagutza sustatzeko bekak, laguntzak edo sariak bultzatzea.



-Aipaturiko lurralde-eremuetan ondare geologikoarekin eta paleontologikoarekin zerikusia duten beste erakunde batzuekin lankidetzako hitzarmenak egitea.

-Geologiaren, paleontologiaren eta biodibertsitatearen arloan, Oiartzun estatuan zein nazioartean erreferente izan dadin lagunduko duten jarduerak gauzatzea.

-Fundazioaren helburuak lortzera bideratuak egon daitezkeen bestelako jarduera batzuk.

2.- Helburu horiek lortze aldea, Fundazioak jarduera hauek egin ahalko ditu:

a) Fundazioak eratzeko helburuak egoki irizten dion moduan garatu ahal izango ditu, baita beste erakunde edo elkarte batzuekin lankidetzan ere.

b) Fundazioak merkataritza- eta industria-jarduerak egiteko gaitasuna izango du, hemen ondoren adierazten den moduan:

-Bere kasa, eratzeko helburuekin zerikusia duten jardueretan edo berorien zerbitzura daudenetan.

-Gainerako kasu guztietan, bazkideen erantzukizuna mugatu duten elkartetan parte hartuta.

4. artikulua.- Helbidea eta lurralde-eremua.

1- Hona Fundazioaren helbidea: Oiartzun, Pagoaldea Poligonoa 41-42, Ergoien auzoa.

2.- Fundazioaren Patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabaki baten bidez aldatu ahalko da helbide hori, eta erabaki hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da. Halaber, Patronatuari ahalmena ematen zaio establezimenduen, ordezkartzen edo bulegoen egoitzak hautatzeko, kasuan kasuko fundazioaren helburuak betetzeko eginkizunean sortzen diren beharizanen arabera.

3- Fundazioak, batez ere, Oiartzunen eta Oarsoaldean garatuko ditu jarduerak, baina Euskal Herri osoan eta beste leku batzuetan, kasuan-kasuan, garatu ahalko ditu jarduerak.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial:

B 23855009



5. artikulua.- Onuradunak.

1.- Hauek izango dira Fundazioaren prestazioen eta zerbitzuen onuradunak:

1) Fundazioak, interes orokorreko helburuen barruan, irizpide nagusiztat objektibotasuna eta inpartzialtasuna izango ditu onuradunak aukeratzeko orduan, eta ezin izango du inolako diskriminaziorik egin.

2) Alde horretatik, onuradunak ondorengo pertsona-taldeak izan ahalko dira:

-Oiartzungo Haraneko Euskal Herriko eta beste lurralde-eremu batzuetako ondare geologiko eta paleontologikoari buruzko ezagutzak eduki eta sakondu nahi dituzten ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak.

-Hizpide dugun gaiaren inguruan ezagutzak eduki edo sakondu nahi dituzten ikertzaileak.

-Oiartzungo bizilagunak, turistak eta herria ezagutzera datozen gainerako bisitariak.

2.- Onuradun zehatzak izendatzeko, kontu hauek izango ditu aintzat Patronatuak:

a) Fundazioaren jarduerak pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatutako kolektibo orokorreari ekarri behar die onura. Onuraduntzat hartuko dira enpresa bateko edo batzuetako langileak eta horien senitartekoek osatutako kolektiboak. Nolanahi ere, onuradunak aukeratzeko irizpideek objektiboak eta inpartzialak behar dute izan.

b) Ezin izango da Fundazioaren helburu nagusia izan haren prestazioak eskaintzea hauei guztiei: sortzaileei edo Patronatuko kideei, haien ezkontideei edo haiekin antzeko harreman afektiboa dutenei edo haien laugarren gradura bitarteko senideei (laugarrena barne), ez eta interes orokorra ez duten pertsona juridiko bereiziei ere.

c) Nolanahi ere, inork ere ezin izango du alegatu, ez bakarka ez taldeka, Fundazioaren edo Patronatuaren aurrean, onura horiek eman baino lehen baliatzeko aukera, ezta pertsona jakin batzuei emanarazi ere.

6. artikulua.- Jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak.

Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:



- a) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren xede eta jardueri buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek oro har eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.
- b) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- c) Jarduteko jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu.
- d) Patronatuko kideen zerbitzu-espituaren sustapena, bai eta fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espituarena ere.
- e) Etengabeko lanikidetzat leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.
- f) Ondarea eta errentak fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zaintza, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrira.
- g) Genero-berdintasuna eta euskararen sustapena.

II. TITULUA.- PATRONATUA

7. artikulua.- Fundazioaren Patronatua.

Patronatua fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoa da. Patronatuari egokituko zaio fundazioaren helburuak betetzea, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea, bai eta haien errendimendua eta erabilgarritasuna segurtatzea ere.

8. artikulua.- Patronatuaren osaera.

- 1. Patronatuak, gutxienez, lau kide izango ditu.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855008



2.- Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahalko dira patronatukideak. Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta ezin izango dute desgaituta egon kargu publikoak betetzeko. Patronatukideak diren pertsona juridikoek izendatu beharko dituzte organo horretan haien ordezkari izango diren pertsona fisikoak (bakarra ere izan daiteke).

3.- Patronatuko kideek ondoko karguak bete beharko dituzte edo, hala badagokio, Patronatuko kide ez den pertsona bat izendatu beharko dute idazkaria eta diruzaina izateko.

- Presidente (Oiartzungo Udalaren ordezkaritza duena).
- Presidenteordea.
- Idazkaria (Fundazioaren patronatukidea ez bada, hitza bai, baina botorik ez du izango).
- Diruzaina (Fundazioaren patronatukidea ez bada, hitza bai, baina botorik ez du izango).

9. artikulua.- Patronatuko kideen izendapena eta kargu-uztea.

1.- Fundazioaren sortzaileek izendatuko dute, eraketa-eskrituran, lehenengo Patronatua.

2.- Patronatukide berriak izendatu behar direnean, kide gehiago izango direlako edo kideren bat ordezkatu behar delako, Patronatuak izendatuko ditu. Horretarako, kide guztien aldeko botoa beharko da gutxienez.

3.- Patronatuak hiru hilabeteko epean eman beharko dio bere kideen izendapenaren eta kargua utzi izanaren berri Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari, izendatze edo kargu uzte akordioak hartzen diren egunetik zenbatzen hasita.

4.- Patronatukideek berriaz onartu beharko dute beren izendapena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren baten arabera. Karguari uko egiten badiote, aipatu artikulua 2. atalean aurreikusitako moduren batean egin beharko dute.

5.- Patronatukideen karguak baliogabetzea erabaki ahal izango du organo judizial eskudunak, erantzukizuneko jardunbidea abian jarri bada haien aurka legeak aurreikusitako prestasunez ez betetzeagatik.



6.- Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira gobernuko organoko kideen izendapena eta kargua utzi izana.

10. artikulua.- Patronatukideen kargu uztearen arrazoiak.

1.- Patronatukideek kasu hauetan utziko diote patronatukide izateari:

- a) Hiltzen direnean edo hil egin direla deklaritzen denean, eta pertsona juridikoa azkentzen denean.
- b) Legeak ezarritakoaren arabera, ezgaitasun-, desgaitasun- edo bateraezintasun-egoeraren batean gertatzen denean.
- c) Patronatukide izatera eraman zuten kargua betetzeari uzten diotenean.
- d) Kargua ordezkari leial batek berez behar duen arduraz betetzen ez dutenean, baldin eta ebazpen judizialez adierazten bada ez dutela hala bete.
- e) Ebazpen judizialez erantzukizun-akzioa onartzen denean.
- f) Agintaldia amaitzen zaienean, baldin eta aldi jakin baterako izendatu bazituzten.
- g) Karguari uko egiten diotenean.

11. artikulua.- Patronatukideak ordezteak.

1.- Patronatukideak prozedura honi jarraikiz ordeztuko dira: aurreko artikuluan aipaturiko inguruabarren bat gertatzen denean, Patronatuko kideak bildu egingo dira eta patronatukide berria edo berriak izendatzeko proposamena egingo du eta, hala badagokio, izendatuko d(it)u.

2.- Patronatukideak aipatuko eran ordeztu ezin direnean, Fundazioen Legearn araututako estatutu-aldaketara joko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak ahalmena izango du Fundazioa gobernatu eta ordezkatzeko duen organoa behin-behinean –hau da, estatutuak aldatu arte– osatuko duten kideak izendatzeko (kasu batzuetan, kide bakarra izan ahalko da).



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855007



3.- Uneren batean patronatukideak hiru baino gutxiago badira, patronatukide bakarreko kasuetan izan ezik, gainerako patronatukideek (beti ere haien kargua indarrean dagoela), edo sortzaileek, hala badagokio, behar adina kide izendatu ahal izango dituzte legeak eskatzen duen gutxieneko kopurura iristeko, eta 30 eguneko epea izango dute izendapen horiek Babesletzari horren berri emateko.

4.- Fundazioaren patronatukideen ordezkapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

12. artikulua.- Patronatuaren iraupena.

1.- Patronatukideen karguak aldi baterakoak edo mugagabeak izango dira. Aldi baterakoa izanez gero, gobernu-organoko kidea berriz hautatu ahal izango da, iraupen bereko denboraldietarako, inolako mugarik gabe (aukerakoa).

2.- Heriotza, ezintasuna, desgaitasuna, heriotza-adierazpena, baztertzea edo bateraezintasuna, aginte-eparearen bukaera, ukoa, lekualdatzea edo gobernu-organoko kide baten ordezkatzeta nahiz kargu-uztea edo beste edozein gorabehera dela-eta, bete gabe geratzen diren diren postuak Patronatuak beteko ditu. Kargu bat ezin izango da egon 6 hilabetetik gora bete gabe.

13. artikulua.- Patronatukide-karguaren doakotasuna.

1.- Fundazioetako patronatukideek doan jardungo dute beren karguan. Dena den, eginkizun horiei lotuta dituzten gastuen zenbatekoa itzuli egingo zaie, behar bezala justifikatuz gero.

2.- Beren eginkizunei dagozkien zerbitzuez gainera Fundazioan beste zerbitzu batzuk ematen dituzten patronatukideei ordainsari bat ematea erabaki dezake Patronatuak, salbu eta fundazioaren sortzaileek hori egitea espresuki debekatzen badute. Erabaki hori Babesletzak baimendu egin beharko du, hiru hilabeteko epean.

14. artikulua.- Fundazioko presidentea.

1.- Patronatuak presidente bat hautatuko du bere kideen artean, eta haren ardura izango da, bere ekimenez edo gutxienez kideen herenak hala eskatuta, Patronatua biltzeko deialdia egitea, eztabaidak bideratzea eta hartzen diren erabakiak betearaztea.



2.- Patronatuko presidentea gobernu organo horren kargu gorena izango da, eta, organo horretako kide izateak berezko dituen ahalmenak izateaz gain, Fundazioa ordezkatu beharko du Patronatuaren erabakietatik eratorritako ekitaldi eta kontratu guztietan eta Fundazioaren beste organoetan, eta baita aurkezten diren bestelako auzi, espediente, eta administrazio, epai, eta judizial kanpoko gaietan ere. Horrez gain, prokuradore eta/edo abokatuei botere orokorrak emateko ahalmena du, azaldutako xedeari buruzko auzietarako.

15. artikulua.- Presidenteordea.

1.- Patronatuak presidenteordea izendatu ahal izango du bere kideen artean, bere kideen gehiengoaren botoaz.

2.- Presidentea ageri ez bada edo gaixo badago, presidenteordeak hura ordezkatzeko du, eta hori egiaztatzeko nahikoa izango da egoeraren berri ematea. Bai presidentea bai presidenteordea ageri ez badira, kide edadetuenak ordezkatzeko ditu.

16. artikulua.- Idazkaria.

Patronatuak idazkari bat izendatuko du, bere kideen artean edo kanpoko pertsonen artean. Idazkariaren ardura izango da Fundazioaren administrazio-lanak zuzentzea, dokumentazioa zaintzea eta Patronatuaren Akta Liburura transkribatzen diren bileren akta egitea, haiek onartuak izan eta presientearen oniritzia jaso ondoren.

17. artikulua.- Diruzaina.

Patronatuak diruzain bat izendatuko du, bere kideen artean edo kanpoko pertsonen artean. Diruzainaren ardurak hauexek izango dira:

- a) Fundazioaren funtsak biltzea eta gordetzea.
- b) Sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
- c) Inbentarioen, Kontuen, Jarduera Planaren eta Eguneko Liburuak eramatea.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855006



18. artikulua.- Fundazioaren zerbitzuko langileak.

1.- Kudeaketa orokorra gerentzia bati eskatu ahalko zaio, eta haren izendapena eta kargu uztea Babesletzari jakinarazi beharko zaio. Gerenteari emandako ahalorde orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

19. artikulua.- Patronatuaren eginkizunak.

Fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagokion guztia Patronatuaren eginkizuna izango da, eta bereziki hau guztia:

- a) Fundazioaren orientazioa ezarri, haren helburuak ahalik eta hobekien bete daitezen.
- b) Ekonomia- eta finantza-baliabide guztiak administratu, haien jatorria edozein dela ere.
- c) Ontzat eman Inbentarioa, Egoera-Balantzea, Emaizten Kontua eta aurreko ekitaldiko Memoria, bai eta aldi horretako planaren likidazioa ere.
- d) Hurrengo ekitaldiko jarduera-plana onartu, bai eta hura azaltzen duen memoria ere.
- e) Egoki diren barne-erregimeneko arauak onartu.
- f) Batzorde delegatuak sortu, haien batzordekideak izendatu eta batzorde horiek izango dituzten ahalmenak zehaztu eta ahalorde orokorrak edo bereziak eman, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.
- g) Zuzendaritza-, betearazpen- eta aholkularitza-karguak izendatu, eta arlo teknikoan, administrazioan eta lan orokorretan behar diren gainerako langileak eta mendeak kontratatatu.
- h) Fundazioaren helburuei begira hobekien egokituko diren egintza eta kontratu-mota oro formalizatu eta onartu, zeinahi ere den haien izaera: zibila, merkataritzakoa, lan-arlokoa, administrazioakoa eta abar.



i) Erakunde eskudunen aurrean beharrezko proposamenak egin, maila goragoko erabakia beharko duten gaien kasuan.

j) Enpresa, elkarte, erakunde edo partikularren partaidetza sustatu elkarlan teknikorako eta langile kualifikatuak trebatzeko programetan, funtsak emanez eta lankidetza hitzarmenak sinatuz.

k) Herentziak, legatuak edo dohaintzak onartu edo haiei uko egin, Fundazioarentzat komenigarria den guztietan; hori horrela, Babesletza jakinaren gainean jarriko da.

l) Fundazioaren estatutuak aldatu, fundazioaren sortzaileen borondatea hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

20. artikulua.- Ahalmenak eskuordetzea eta ahalordeak ematea.

1.- Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahalko ditu bere kideren batengan. Ezin izango da, inola ere, eskuordetu gai hauek erabakitzen dituzten akordioak:

a) Urteko kontuen onespena.

B) Jarduera-planaren onespena.

c) Estatutuen aldaketa.

d) Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, azkentzea eta likidatzea.

e) Beste pertsona juridiko baten eratze-egintzak, ez badaude erabat lotuta helburuei.

f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.

g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzin duten ondasunak edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.

h) Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855005



i) Aktibo eta pasibo guztien edo haien parte baten bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.

j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk desegiteko egintzak.

k) Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinetarako.

l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

2.- Orobat, Patronatuak ahalorde orokorrak eta bereziak eman eta errebokatzeko aukera izango du. (Kontrakoa gertatuz gero, espresuki adierazi beharko da estatutu hauetan).

21.- artikulua. Batzorde ahaldunduak edo eskuordetuak

1.- Patronatuak aldi baterako eta betirako eskuordetu ahalko ditu bere ahalmenak Patronatuko zenbait kideren alde eta, horretarako, batzorde ahaldunduak edo eskuordetuak sortu beharko ditu.

22. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak.

Fundazioaren patronatukideek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Fundazioaren helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea, legeak eta Fundazioaren estatutuek diotenari jarraikiz.

b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta haien produktibitateari eustea, kudeatzaile on baten ekonomia- eta finantza-irizpideei jarraikiz.

c) Kargua ordezkari leial baten prestasunaz betetzea.

23. artikulua.- Patronatukideen erantzukizuna.

1.- Patronatukideek solidarioki erantzungo dute Fundazioaren aurrean, legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz edo kargua eduki beharreko arduraz ez betetzeagatik eragiten dituzten kalteengatik eta galerengatik.



2.- Hauek guztiak erantzukizunetik aske geratuko dira: erabakiaren kontra bozkatu dutenak, erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez eta erabakiaren berririk ez zutela frogatzen dutenak, bai eta, erabakiaren berri izan arren, kaltea ekiditeko komeni zen guztia egin zutela edo gutxienez esanbidez aurka agertu zirela frogatzen dutenak ere.

24. artikulua.- Patronatuaren barneko funtzionamendua.

1.- Patronatuak, gutxienez, 2 batzar egingo ditu urtean. Bata, urteko lehenengo sei hilekoan, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko eta emaitzak aurkezteko eta, batesea, laugarren sei hilekoan, hurrengo ekitaldiko aurrekontua eta Jarduera Plana onartzeko.

2.- Patronatuaren deialdiak idatziz egin beharko dira, presidenteak erabakitako gai-zerrenda jasota, eta gobernu-organoko kideen iradokizunak kontuan hartuta. Deialdiok bilera-eguna baino gutxienez 7 egun lehenago egin beharko dira, premiazko kasuetan izan ezik; horrelakoetan, epea 3 egunetara murriztu ahal izango baita.

25. artikulua.- Patronatua osatzea eta erabakiak hartzea.

1.- Patronatua balio osoz eraturik egongo da lehenengo deialdian, gutxienez kideen erdiak gehi bat agertzen direnean, bertan egonda edo ordezkari bidez.

2.- Aurreko paragrafoan adierazi den quoruma biltzen ez bada, Patronatua ordubete geroago elkartuko da. Bigarren bilera horretarako, berdina izango da zenbat kide azaltzen diren, betiere gutxienez hiru biltzen badira eta haien artean presidentea eta presidenteordea badira.

3.- Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, Patronatua deitu egin dela eta zilegi osatuta dagoela ulertuko da, kide guztiak bertan badaude, eta aho batez onartzen badute bilera egitea.

4.- Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, honako kasu hauetakoren batean izan ezik:

a) Aldaketa, bategite, bereizketa eta azkentzeari buruzko erabakien kasuan, nahitaezkoa izango da Patronatuko kide guztiek aldeko botoa ematea.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855004



5.- Presidente diharduenaren botoak sor litezkeen berdinketak hautsiko ditu.

6.- Idazkariak Patronatuaren bilera bakoitzaren akta egingo du, zeinean, bileraren tokiaz eta egunaz gain, bertaratu diren pertsonen izenak, eztabaidagaiak eta hartutako erabakien edukia jasoko baitira.

7.- Patronatua bideokonferentziaz edo beste komunikabide batzuk erabiliz bildu ahalko da, betiere hau guztia bermatzen bada: bertaratutakoen identifikazioa, komunikazioaren jarraitutasuna, eztabaidetan esku hartzeko aukera eta botoa emateko aukera. Horrela eginez gero, bilera presidentea dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

8.- Salbuespen gisa, bilerarik egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak Patronatuak, betiere informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela nonbait agerrarazten bada eta haren benetakotasuna bermatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren helbidean hartu dela ulertuko da, eta emandako baliozko botoetatik azkena jasotako datan.

III. TITULUA.- ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea honako hauek osatuko dute: batetik, zuzkidura osatzen duten eta ekonomikoki balioets daitezkeen ondasunek, eskubideek eta obligazioek; eta, bestetik, eratu ondotik fundazioak lortutakoek -zuzkidurari lotu ala ez-.

27. artikulua.- Ondare-zuzkidura.

1.- Fundazioaren hasierako ondarezko zuzkidura eratzeko eskritura publikoan jasotzen da, eta fundazioaren sortzaileek ekarritako ondasunek eta eskubideek osatzen dute.

2.- Ondoko ondare-zuzkidurak Patronatuak onartu beharko ditu, eta urteko kontuetan jaso behar dira.



3.- Fundazioak bere zuzkidura handitzera zuzendu behar ditu diru-sarreraren soberakinak.

28. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea.

1.- Fundazioaren ondarea zaindu eta babesteko, arau hauek bete beharko dira:

a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egon behar dira. Inbentarioan jaso beharko dira, eta, kasuan kasu, dagozkien erregistroetan inskribatuko beharko dira.

b) Ondasun higiezinak eta/edo benetako eskubideak Fundazioaren izenean inskribatuko dira, Jabetza-Erregistroan. Inskribatu daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.

c) Balioak eta esku-dirua, jabetza-tituluak, gordailu-ordezlagiriak eta jabaria, jabetza, erabilera, gozamina edo Fundazioaren titulartasunean dagoen beste edozein eskubide egiaztatzen duten beste edozein dokumentu Fundazioaren izenean gordeko dira, Patronatuak ezarritako erakundean.

d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak zehazten duen eran gorde eta zainduko dira.

2.- Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentario Liburuan zehaztuko dira. Liburu hori Patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da, eta bertan, haren ikuskaritzapean, haiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak agertuko dira.

29. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak.

1.- Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidali beharko ditu urteko kontuak, behar bezala sinatuta, gordailu ditzaten. Kontuok irabazi asmorik gabeko erakundeetarako ezarritako kontabilitateari buruzko arauak bete beharko dituzte.

2.- Fundazioaren urteko kontuek elementu hauek jasoko dituzte gutxienez: balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduera-planaren likidazioa.



Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

B 23855003



Orobat, Patronatuak kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitako kasuetan.

3.- Halaber, kontuotan datu hauek guztiak jaso beharko dira: fundazioaren ondarezko, ekonomia eta finantza-egoera, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, Fundazioaren helburuak eta lege arauak bete direla jakinarazi eta egiaztatzeko betiere.

4.- Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da, eta urte naturalarekin bat egingo du. (Urte naturalarekin bat egin ezean, estatutuetan adierazi beharko da).

Fundazioak Jarduera-Plan bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, non diru-sarrerak eta gastuak adieraziko baititu orekaz. Aurrekontu hori Babesletzari aurkeztuko zaio, onartzen den urtearen azken hiruhilekoan, azalpen-memoriarekin batera.

30. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

1.- Gutxienez emaitzen kontuaren diru-sarreraren % 70 baliatu beharko ditu Fundazioak bere helburuak gauzatzeko. Diru-sarrera horiek kontzeptu guztiak direla-eta lortuak izango dira, diru-sarrerak lortzeko fundazioak izandako gastuak kenduta, fundazioaren helburuak betetzeari buruzkoak izan ezik. Irabazi eta diru-sarrerak lortu direneko ekitaldiaren hasieratik hasi eta ekitaldi hori itxi ondoren hiru urte igaro arte izango da obligazio hori betetzeko epea.

2.- Administrazio-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek haien karguak betetzeagatik egindakoak ere, baldin eta diru hori itzulua izateko eskubiderik badute.

31. artikulua.- Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jardueren garapena.

1.- Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egin ahal izango ditu Fundazioak, zuzenean nahiz beste erakunde batzuen bitartez, halako jarduerak fundazioaren helburuekin lotuta badaude edota jarduera horien osagarriak edo lagungarriak badira, eta betiere lehiaren defentsarako arauei men eginez.



2.- Gainera, beste erakunde batzuetan partaide izanda ere parte hartu ahal izango dute beste edozein ekonomia-jardueratan, sozietate-zorren gainean erantzukizun pertsonalik ez dagoen kasuetan.

32. artikulua.- Xedatze- eta zergapetze-egintzak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko dizkio Fundazioak beraren ondarea osatzen duten ondasunen edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedatze-egintzak, baita kargatze-egintzak ere. Honako hauek, hain zuzen:

2.- Patronatuak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio Babesletzari, non zehaztuko baita xedatzeko edo kargatzeko erabakia behar bezala hartu dela eta horretarako arrazoiak eta beharrak zein diren, orobat eragiketak fundazioari ez diola kalterik eragiten eta haren bideragarritasun ekonomikoa ere ez duela arriskuan jartzen.

3.- Xedatze- edo kargatze-egintzen xede diren ondasun edo eskubideek merkatuan duten balioa fundazioaren aktiboaren % 60 baino handiagoa bada, Patronatuak azterlan ekonomiko bat erantsi beharko dio erantzukizunpeko adierazpenari, profesional independente batek egina. Adierazpenean azaldutakoa egia dela ziurtatu beharko du azterlanak, eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharko du, bai eta eragiketa irizpide ekonomiko-finantzarioekin eta merkatukoekin bat datorrela ere.

4.- Aipatutako xedatze- edo zergapetze-egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasoko dira, edo beste edozein erregistrotan inskribatuko dira, hala badagokio. Gainerako xedatze- edo zergapetze-egintzak Babesletzari urtero aurkeztu beharreko memorian jaso beharko dira.

IV. TITULUA.- ALDATZEA, BAT EGITEA, BEREIZTEA, AZKENTZEA ETA LIKIDATZEA.

33. artikulua.- Estatutuak aldatzea

1.- Fundazioaren Patronatuak estatutu hauek aldatzea sustatu dezake, fundazioaren helburuak hobeto betetzeko egokia bada betiere, eta fundazioaren sortzaileek berariaz debekatu ezean.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855002



2.- Estatutuak aldatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da; Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoaz, gutxienez, hartu beharko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu.

34. artikulua.- Azkentzea.

Fundazioa kasu hauetan azkenduko da:

- a) Eratu zenean finkatutako epea amaitzen denean.
- b) Eratu zenean finkatutako helburua erabat betetzen denean.
- c) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean estatutuen aldaketari, fundazioen bat-egiteari eta bereizketari buruz xedatutakoa gora behera.
- d) Bategite-prozesu edo bereizketa-prozesu baten ondorioz hala gertatzen bada.
- e) Eratze-eskritura publikoan jasotako arrazoiak gertatzen direnean.
- f) Legeek aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

35. artikulua.- Azkentzeko prozedura.

1.- Aurreko artikuluko a) idatzi-zatian adierazitakoa gertatuz gero, Fundazioa zuzenbide osoz azkenduko da.

2.- Aurreko artikuluko b), c) eta e) idatzi-zatietan adierazitakoa gertatuz gero, Fundazioa azkentzea Patronatuak erabaki beharko du eta Babesletzak berretsi. Patronatuaren erabakirik ez badago edota haren erabakia Babesletzak berresten ez badu, ebazpen judizial arrazoitua beharko da Fundazioa azkentzeko, Patronatuak edo/eta Babesletzak eskatuta, kasuen arabera.

3.- Aurreko artikuluko f) idatzi-zatian adierazitakoa gertatuz gero, ebazpen judizial arrazoitua eskatuko da.



4.- Fundazioa azkentzeko erabakia arrazoitu egin beharko da; Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoaz, hartu beharko da, gutxienez.

Azkentzeko erabakia edo, hala badagokio, ebazpen judizial arrazoitua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

36. artikulua. Soberako ondarearen likidazioa eta erabilera.

Fundazioa azkentzen bada –haren jatorria bat-egite prozeduraren bat den kasuetan izan ezik– edo Fundazioa azkentzeko arrazoiak betetzen badira, likidazio-prozesuari ekingo zaio. Prozesu hori Patronatuak edo, Babesletzaren kontrolpean, gobernu-organo horrek izendatutako likidazio-batzorde batek eramango du aurrera, salbu eta, kasua hori bada, ebazpen judizial arrazoitu batek besterik ezartzen badu. Fundazioak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du prozesua amaitu arte, eta, epealdi horretan, «likidazioan» dagoen fundazio gisa identifikatu behar da.

Likidazioa egin eta gero geratzen diren ondasunak eta eskubideak honetara bideratuko dira:

- a) Erakunde publikoetara edo interes orokorreko helburuak aurrera eramaten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetara (erakundea zehaztu daiteke).
- b) Eratzeko aktan aurreikusi zuten hartara (eratzeko aktan ezartzen den kasurako).
- c) Fundazioa sortu zuten pertsona juridikoengana, fundazioa eratu zenean edo gerora egin zituzten ekarpenei dagokien proportzioan (fundatzaileetarikoa bat sektore publikokoa bada).

3.- Aurreko zehaztapen hori falta bada, azkendutako fundazioaren helburuen antzekoak dituzten beste fundazio edo erakunde batzuetara bideratuko ditu Babesletzak ondasun eta eskubideak, eta, lehentasunez, beren helbidea udalerri berean edo, han izan ezean, lurralde historiko berean dutenetara.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 23855001



V. TITULUA.- BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

37. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa.

Fundazio honen eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da, bai eta haren egintza edo negozio juridiko guztiak ere, legearen arabera hala egin behar badute.

38. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza.

Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren zaintzapean, aholkularitzapean eta kontrolpean egongo da, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera.

39. artikulua. Zehazpen-araubidea.

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean ezarritako zehazpen-araubidea beteko du."

7.- Estatutuen aldaketa egiteko arrazoiak hauek izan direla: EAEko Fundazioen Lege berrira egokitzea.

8.- Berariaz agerrarazten dela estatutuen aldaketa honek Fundazioaren helburua errespetatzen duela eta sortzailearen debekurik ez dagoela.

9.- Aldaketak ez duela inolako eraginik Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoan.

Eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta gera dadin, honako agiri hau idatzi eta sinatu dut, Oiartzunen, 2019ko azaroaren 22an.


Manu Gañan Valero
LUBERRI fundazioaren idazkaria


Jexux Leonet Elizegi
LUBERRI fundazioaren presidentea